



1.- Etxean kontu kantari

Uda partean, jolasean aritzeko joko batekin hasiko gara; kalean, mendian, hondartzan, aire librean ibiltzeko egokia: “Ni ez naiz zomorroa”. Ezagutze eta harrapaketa jolasarekin batera, melodia eta erritmo alai eta jostalariak datoz. Metatzen diren ipuinetan pentsatzen dugunean, hainbat kantu hartu behar ditugu kontutan, horrelako bat proposatzen dizuegu udan kantatzeko, jolasean edota autoan asperturik zoaztenean: “Behin joan nintzen azokara”. Proposamenari amaiera emanez, “Urrezko izara”, antzina antzinako kontakizun bat, oraindik gure herrian jentilak bizi ziren garaikoa.

[Gozatu kantuz eta kontuz!!](#)

2.- Ipuinez ipuin

Aurtengo ibilaldia Euskal Herrian bukatuko dugu. Liburu zahar batean aurkitu nuen, gaur aditzera ematen dudan ipuinaren, ardatza: non eta zeinek jaso ote zuen? Ez dakit, baina ipuingintza unibertsean antzekoak aurkituko ditugu. Hiru anaiek gurasoak hil ondoren eta ondare xume bat jasota, alde egin behar dute etxetik. Sinbologia kodean, haurrek gurasoengandik alde egin behar dute heldu izateko, bere biziari irtenbide propioa eskaintzeko. Garai batean, ipuingintzan eskaintzen ziren ereduetan mutilak ziren ipuin mota horien protagonistak. Esperimentu txiki bat egin dut, eta ipuina gorpuztu ondoren, trukatu egin dugu protagonisten sexua eta konturatu gara, kasu honetan, ez zela ipuinaren esanahia aldatzen. Neskek bizimoduari aurre egin behar diote, gurasoengandik alden du egiten dira, bidaia sinboliko luze bat gauzatu behar dute bizitza profesional eta pertsonal propioa eraikitzeko... Ea gustatzen zaizuen proposamena.

[Abrite portas, kris-kras!](#)

3.- Opor usaina

Ikasturtea bukatzen ari da eta azkeneko proposamena oporrei begira egingo dugu. Liburu desberdinak sartu ditugu eta iruzkin txiki batzuk irakurketa gozamenaz bideratzeko. Jolasean aritzeko liburuak proposatzen ditugu, adin desberdinetako haurrentzako; ipuin dibertigarriak kontatzeko, errepikatzeke, antzezteke, buruz ikasteko. Bukatzeko sail txiki bat gauzez, goxo-goxo, irakurtzeko eta amets egiteko...

Ipuinez, eta oporrez gozatu, alajaina!

4.- Egitasmoa martxan

BM hazten eta handitzen doa. Aurtengo ikasturtean, bidelagun berriak sartu dira egitasmoan: Hernani eta Eskoriatza, eta konturatu gabe lehen txanpa eginga dute, haien jarrera baikor eta laguntzailearekin egin diguten harrera izugarria izan da. Beste bi herri, formakuntza lanetan hiru urtez egon eta gero, hegalak zabaldu eta beraien kabuz hegaz hasteko prest daude: Abusu eta Orereta. Plazer bat izan da orain artekoa eta ez ahaztu BM familiako kide izaten jarraitzen duzuela. Trintxerperi eta Eibarri, ordea, datorren ikasturtean ongi etorria egingo diegu. BM-tren hau, ez da gelditzen, aurrera goaz!! Denoi, eskerrik asko ematen diguzuen guztiagatik.